

Gutxieneko soldata hemen erabaki

LGS 1.500€

Soldatak hobetu, aberastasuna banatzeko

GREBA HAU ZUREA ERE BADA

10 arrazoi langile migratu eta/edo arrazializatuentzat

1. Greba langile guztien eskubidea da, baina guztiok ezin dugu greba egin. Nagusiek badakite hori, eta gu zatitzeko erabiltzen dute.

2. Greba hau GUZTIONA da, guztion artean eraikitzen dugu. Parte hartzeko modu asko daude. Errealitate desberdinen presentzia garrantzitsua da.

3. Greba langileen tresna bat da, eta haren bidez lortu dira gaur egun ezabatu nahi dituzten eskubideak.

4. Gutxieneko soldataren igoerak kontraturik, paperik eta/edo hitzarmenik gabe daudenentzat ere hobekuntza dakartza. Ez pentsa greba honek eragiten ez dizunik, denok gaude inplikatura.

5. Greba honekin GUZTIOK irabazten dugu; bereziki PREKARIZATUEN dauden sektoreek: feminizatuak, arrazializatuak, gazteak.

6. Lan-eskubideak ez dira berdin errespetatzen administrazio-egoeraren, jatorriaren edo arrazaren arabera. Soldata-arrakala arrazista eta koloniala dago.

7. Pertsona migratuek lan-kontratu bat behar dute paperak erregularizatzeko. Patronalak gehiegikeriaz erabiltzen du hori, eta enplegurik gogorrenetan kontratatzen ditu, baldintzarik txarrenetan. Ez da kasualitatea langile migratuek kotizazio gutxiago, prestazio gutxiago, eskubide gutxiago eta SOLDATA GUTXIAGO izatea.

8. Xantaia, mehatxuak eta abusuak ohikoak izaten dira. Honek izen bat du: laneko arrazakeria.

9. Gutxieneko soldatak langile guztientzat izan behar du, betiere lan egindako orduen arabera. Astean 40 ordu baino gehiago lan egiten bada, handiagoa izan beharko du.

10. Greba hau diruaz harago doa. GUZTIONTZAKO ESKUBIDEAK, errekonozimendua, erreparazioa, birbanaketa eta justizia. Esplotazio eta arpilatzearen kontura dirutza egin dutuen negozioa amaitu dadila.



**M17 GREBA
OROKORRA**

LAB
EUSKAL
SINDIKALISMO
ERALDATZAILEA

LAB
EUSKAL
SINDIKALISMO
ERALDATZAILEA